

Karitateko alabak

La de las Hijas de la Caridad, hijas de S. Vicente de Paul, es ciertamente la Congregación que más Casas religiosas ha abierto en Euskal Herria peninsular en los siglos XIX-XX, y lo ha hecho con una dinámica decidida tanto en la apertura como en el cierre de Comunidades, pero siempre con una estabilidad de conjunto firme y secular.

Alde handiarekin, Karitateko Alaben Lagundia izan da Euskal Hegoaldean eta Aro Garaikidean hedapenik handiena izan duen Institutu erlijioso. Etxeak ireki eta itxi unean uneko eta tokian tokiko premiei egokitzuz egin ditu, zuhurtziaz eta ausardiaz aldi berean. XVII. mendetan sortutako Lagundi honek emaitza ugari eman du gure artean.

Karitateko Alaben Lagundia (1633)

San Bizente Paul-goak (1581-1660) eta beronen lagun Louise Marillac-ek (1591-1660) eratu zuten Karitateko Alaben lehen Ahizpartea, landa herrietako eskarmentua jaso eta Pariseko premietarako elkartea era berri batean antolatzean. Laster denbora baterako zinhitz pribatuak egin zituzten (1642), beraz garai haietan ohikoa ez zen moduan. Arazo juridikoak eta praktikoak zituen horrek Eliza barnean, baina beren asmoetan aurrera egin ahal izan zuten.

1646an aitortu zion bere nortasuna Pariseko Artzapezpikuak, eta zinhitz pribatuak mantenduz jarraitzeko eskubidea aitortu zion Aita Santuak mende-laurden bat geroago (1668). Lagundiaren garapenak berak irakatsi zuen legezko izaera zein izan zitekeen. XX. mendean, egindako bideari egokitzapen berriak eman zitzaizkion 1954an eta Kontzilio ondoren (1969, 1974).

Gizarteko behar eta miseriei erantzuten esku beteko lana izan zuten emakume haiek: pobre eta gaixoei etxez etxeko zerbitzuak emanez, landa-auzoetako haurrei eskola eskainiz, ospitaletan jardunez, umezurtzak zainduz, utzitako umeak jasoz (1638), lan bortxatuetara behartuei lagunduz (1640), zaharrek eta gerratan zaurituak bilduz (1653), zoroak gordez...

Karitateko Alaben Lagundiaren jarduera ezagun eta zabalduena gaur egungo zerbitzu sozialek bete behar dituzten zereginiei irtenbideren bat ematea izan da, halakorik ez zegoen garaietatik gure egunak arte. Hain zuzen, Karitateko Alabek laugarren boto bat egiten dute, pobreen zerbitzuan lan egitekoa.

Fundatzaileak hiltzean (1660), 51 Etxe zituen Lagundiak, eta 430 Frantziako Iraultza-koan (1789), 4.300 Alabekin. 1960an, munduan 45.209 izatera iritsi ziren Karitateko Alabak, 65 herrialdetan banatuta eta 4.221 Etxe zituztela. Alde horretatik, arrakasta izugarria, beraz. 2008ko abenduan 19.436 lagun ziren Elkartean, haietako 11.622 European eta 5.777 Espainiako Estatuan.

Karitateko Alabak Euskal Herrian (1805...)

Euskal Iparraldean etxeren bat edo beste izan dute Karitateko Alabek (Hendaia, Miarritze), izan ere ez da ahaztu behar Lande-



tako Departementukoa zela moja-elkarte honen sortzailea, San Bizente, eta Akizen egin zituela lehenengo eliz-ikasketak. Hala ere, ez da Iparraldea etxe-sare trinkoena duten euskal lurraldea.

Hegoaldean dago Karitateko Alaben etxeen multzo handiena, Penintsulako bi Probintzia erlijiosotan banatuta, eta bietakoen izenak Euskal Herriko hiriburuen izenak daramatzate (Donostia, Iruñea), nahiz eta bietan hemendik kanpoko lurraldeak gehiago diren euskal lurraldekoak baino: bata Alacant-eraino iristen da eta bestea Valladolid-eraino.

Donostiako Probintziara mugatuta ere, adibidez, 1999ko datuak miresteko modukoak dira: Probintzia horrek 1.240 Ahizpa zituen eta 111 Ahizparte. Hiru Probintzietara gatzozela, 27 Etxe zeuzkan Gipuzkoan, 21 Bizkaian eta 7 Araban (orotara, 55), eta 590 Ahizpa.

Euskal Herrian lau eremu nagusitan lan egiten dute Karitateko Alabek: osasun-zerbitzuetan, irakaskuntzan, zaharren zerbitzuan eta obra sozial deituetan. 1.808 zahar zeuden EAEn Alabek zainduta (1999), eta zahar-etxerik handiena Bilbo-Santimaminekoa zen, 275 babesturekin; lurralde autonomiko berean dituzten Ikastetxeetan, aldiz, izena emanda-koak 3.764 ikasle ziren.

Honek guztiak makineria handia eskatzen du, noski, batzuetan Lagundiarena berarena dena eta bestetan Herri-Erakunde, ekimen sozial eta mota guztietako ekimenek sustatu eta mantendua. Izan ere, Karitateko Alaben jokabide orokorrean baitako, alde batetik beren kabuz sortutako Etxe eta Obrantzak eramatea, baina sarritan handik eta hemendik deituak izan dira (Aldundi, Udaletxe eta aba-

rretatik, adibidez), eta horrelakoetan herri-agintari eta babesle fundatzaileen esanetara lan egin dute. Normalean, malgutasun hau ez da ikusi izan modu hain argian Elizako Institutu erlijiosoetan.

Karitateko Alaben lehenengo Etxea Iruñean ireki zen, 1805ean, eta hortik hasita, hurrengo urteetan hainbat Etxe ireki zen Nafarroan, mende horren barruan 24 Etxe izateraino, Elizondotik Corella-raino. 1821ean Bilboko Ospitalean zeuden eta 1908an Basurtokora lekualdatu ziren, eta Jaurerriko beren hedapean herri askotara heldu ziren (Bermeo, Lekeitio, Gernika, Elorrio, etab.).

Gasteizko Santiago Ospitalean jarri ziren, 1826an, Udaletxeak deituta. Lau urte geroago Gipuzkoari suertatu zitzaion bere txanda: Tolosako lurrarendi Ospitalea eta Ongintza Etxea beraien ardurapean geratu ziren, herritik eskatutako Ahizpa euskaldunak iristean. Donostiak ere beste hainbeste egin zuen, Ospitale eta Erruki-Etxerako beste Ahizparte bat ekarriz (1832). XIX. mendean zehar beste hamasei herri gipuzkoarretan izan zituzten Etxeak Karitateko Alabek (Oñati, Hondarribia, Mutriku, Segura, Elgoibar, etab.).

Berrehun urteko iragan erraldoi honen Historia idazteko dago oraindik bere osotasunean. Euskal Herriko herri, erakunde, fundazio eta elkarte asko egon da bitarteko ahalegin horietan, eta moja euskal herritarrek hortxe eman dituzte beren bizitzak. Ez zuten, beti asmatuko, baina milaka lagunengatik pobrezia eta oinazeak arindu izan dituzte, garai zail eta eskasetan.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharrak: 610273580